**PROGRAMAZIO LABURTUA**

| IKASTETXEAREN IZENA | OLABIDE IKASTOLA | | | | | | | | | | 2017-2018 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ARLOA / GAIA | EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA | | | | | | | DATA | | | 17/09/15 | |
| MAILA | DBH 1 | | DBH 2 | | DBH 3 | | DBH 4 | X | 1. BATX. | | 2 .BATX. | |

| 1 | DBH4 KONPETENTZIAK ETA HELBURUAK |
|---|---|

## DBH4 AMAIERAKO KONPETENTZIA

Eremu sozialeko egoera batean, ikaslea gai da arazo jakin bati buruzko kontzientzia hartzea helburu duen ekintza bat elkarlanean planifikatu, burutu eta balioesteko, ekimen-prozesuko urratsak gauzatzeko egoeraren eskakizunen baitan baliabide digitalak erabiliz, hizkuntza anitzetan mezuak sortuz, norbere zereginekiko autonomia eta ardura erakutsiz eta erabakiak adostasunez hartuz.

## DBH4 EUSKARA ARLOKO KONPETENTZIAK

**1.UNITATEA**

Instituzioek dituzten harremanetarako bideak, eta komunikazio-behar anitzei erantzuteko ohiko testu-generoak eta haien funtzioak ezagutuz; ikasleak komunikazio-asmo jakinei erantzuteko testuak autonomiaz sortzen ditu, egoki eta zuzentasunez.

HELBURUAK

1. Instituzioekiko harremanetarako landutako hizkuntzaren ezaugarriak, ezagutu eta emandako testuetan nahiz norberak sortutakoetan zuzen aplikatu.
2. Hitzen esanahia deduzitu, ageri direneko testuinguru semantikoa eta euren jatorria nahiz osaketa kontuan hartuz eta norbere testuetan erabili.
3. Instituzioekiko harremanetan, komunikazio-asmo jakin bati erantzuteko egokiena den testu-generoa hautatuz, testu-genero horri dagokion egitura-osagai bakoitzaren funtzioaren baitan edukia sortu eta antolatu.
4. Emandako ideien artean dagoen erlazio semantikoa identifikatu eta erlazio logikoa adierazteko landutako baliabide anitzak (hitzezkoak eta hitzezkoak ez direnak) aplikatuz, erlazio hori duten ideiak modu desberdinez adierazi.
5. Iturri digitaletan helburu jakinen zein norbere beharren aurrikuspenekiko garrantzitsua den informazioa hautatu, antolatu eta erregistratu.
6. Geroz eta autonomia handiagoa erakutsi norbere ikaskuntza-prozesuaren autorregulazioan, ikasitako eta egindakoaren kontzientzia hartuz eta hobekuntzarako erabakiak hartuz.

**2.UNITATEA**

Euskal ahozko literaturari eta poesiari buruzko ezagutzak eta ideiak sortzeko estrategiak baliatuz, ezagutza horiek komunikazio-asmoaren eta hartzailearen baitan azaltzen ditu eta bere sentimendu, bizipen edota mundu ikuskera modu poetikoan adierazten du, ahoz nahiz idatziz.

HELBURUAK

1. Euskal ahozko literaturako generoak, haien ezaugarriak eta obrak ezagutu eta erlazionatu.
2. XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-mugimenduak, haien ezaugarriak, autoreak eta obrak ezagutu eta erlazionatu.
3. Euskal lirikako lan esanguratsuak aztertuz eta interpretatuz, ulertutakoa besteei azaldu, ahoz zein idatziz, edukia proposatutako testu-sekuentzien arabera antolatuz.
4. Hartzailearen arreta bereganatzeko eta mantentzeko landutako estrategiak sormenez baliatu.
5. Elkarlana eskatzen duten ekimenetan, jokaera asertiboa erakutsi, eta lana burutzeko hartutako konpromiso pertsonalari modu arduratsuan eta autonomía maila onargarriarekin erantzun.

**3.UNITATEA**

Eremu pertsonalarekin, sozialarekin edota akademikoarekin lotutako egoerei buruzko hausnarketa egin ondoren, hausnarketaren emaitza adierazteko, ikasleak askotariko testuak sortzen ditu, egoki eta zuzen, horretarako ikasitako baliabideak eta estrategiak erabiliz.

HELBURUAK:

1. Genero askotariko testuak aztertuz haien antolaketa modua inferitu, eta testuok luzatu horretarako estrategiak aplikatuz.
2. Proposatutako zereginetan, testuaren koherentzia eta kohesioa bermatzen duten hizkuntza-baliabideak aplikatu.
3. Aztertutako testu-generoak oinarritzat hartuz, finkatutako komunikazio-asmoari erantzuten dion testua planifikatzeko erabakiak hartu.
4. Proposatutako zereginetan, testuaren koherentzia eta kohesioa bermatzen duten hizkuntza-baliabideak aplikatu.
5. Elkarlaneko berrikusketa-prozesuan errespetuz eta arduraz parte hartuz, hobetzeko iradokizunak eman; eta

kideek emandako iradokizunak balioetsi ondoren nork bere lanak hobetzeko erabakiak hartu eta aplikatu.

.

| 2 | EDUKI-BALIABIDEEN DENBORALIZAZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ORD | **1. ebaluazioa** | ORD | **2. ebaluazioa** | ORD | **3. ebaluazioa** |
| | **KONTZEPTUAK**<br>**Diskurtso-sekuentziak**<br>**-**Deskribapen-sekuentzia<br>-Esplikazio-sekuentzia<br>-Egoera/arazoa<br>-Eskaera, erreklamazioa…<br>-Justifikazioa<br><br>**Testu-generoak**<br>-Kexa<br>-Eskabide-gutuna<br>-Eskabide-orria<br>-Erreklamazio-gutuna<br>-Erreklamazio-orria<br>-Zoriontzeko gutuna<br>-Barkamena eskatzeko gutuna<br>-Eskerrak emateko gutuna<br><br>**Hizkuntza-baliabideak**<br>**Testuinguruaren eremuan**<br>-Igorle eta hartzailearen rolak eta testuinguru soziala<br>-Erregistro formala<br>-Igorle/hartzaile tratamendua: agurrak<br>-Igorle eta hartzailearen presentzia diskurtsoan<br>-Hizkuntza-funtzioak: gonbidatzea, eskertzea, eskatzea, zoriontzea…<br>-Esaerak/esapideak<br>-Kortesia-estrategiak<br><br>**Testuaren eremuan**<br>-Komunikazio-asmoaren baitako informazioa<br>-Ideien arteko erlazio semantikoa<br>- Moduzkoa<br>- Denborazkoa<br>- Kausa/ondoriozkoa<br>-Kohesiorako baliabideak, kausa/ondorio erlazioa adierazteko<br>- Testu-antolatzaileak (denbora itxura duten kausalak, berariaz kausalak eta ondoriozkoak…<br>- Puntuazioa<br>- Lexikoa (arrazoi, eragile…)<br>**Perpausaren eta hitzaren eremuan**<br>-Erakundeen eremuko lexikoa<br>- Zehaztasuna, lexiko espezializatua<br>- Hitz elkartuak | 7 | **KONTZEPTUAK**<br>Literatura<br>Euskal ahozko literaturako generoak eta obrak, XX. mendeko euskal poemagintzako mugimenduak, autoreak eta obrak<br><br>Diskurtso-sekuentziak<br>- Deskribapen-sekuentzia<br>☐ Informazio-kategoriak<br>- Esplikazio-sekuentzia<br>☐ Ideia nagusiak<br>- Arrazoiak (informazioak, adibideak, norbere sentimendu eta gustuak)<br>**Testu-generoak**<br>**-** Balada<br>- Maite-kantua<br>- Kopla zaharra<br>- Bertsoa<br>- Atsotitza<br>- Poema<br><br>**Hizkuntza-baliabideak**<br>**Testuinguruaren eremuan**<br>**-** Komunikazio-asmoaren eta hartzailearen ezaugarrien baitan hartzailearen arreta eskuratu eta mantentzeko baliabideak<br>☐ Baliabideak fonikoak<br>- Errima<br>☐ Baliabide semantikoak<br>- Metafora<br>☐ Baliabide gramatikalak<br>- Errepika<br>☐ Baliabide paralinguistikoak<br>- Ahotsaren erabilera<br>- Gorputzaren jirakoak<br>☐ Galdera erretorikoak eta elkarrizketa<br>**Testuaren eremuan**<br>**-** Komunikazio-asmoaren baitako informazioa/ideiak<br>- Komunikazio-asmoaren baitako informazioaren/ideien antolatzea<br>Perpausaren eta hitzaren eremuan<br>- Lirikaren eremuko lexikoa<br><br>**PROZEDURAK**<br>**PENTSATZEN ETA IKASTEN ETA KOMUNIKATZEN JAKIN**<br>Mezuak ulertzeko prozedurak eta adierazteko prozedurak<br>- Analisia<br>☐ Informazio esplizituaren | | **Diskurtso-sekuentziak**<br>**-** Deskribapen-sekuentzia<br>☐ Gaia eta azpigaiak edota informazio-kategoriak<br>- Narrazio-sekuentzia<br>☐ (pertsonaiak,) hasierako egoera, arazoa edo gatazka, ekintzak eta amaierako egoera<br>- Argudio-sekuentzia<br>☐ tesia eta argudioak<br>**Testu-generoak**<br>**-** Iritzi-artikulua<br>- Lagunarteko gutuna<br>- Ahozko azalpena<br>- …<br><br>**Hizkuntza-baliabideak**<br>**Testuinguruaren eremuan**<br>**-** Pertsona-deixia: igorlearen eta hartzailearen presentzia diskurtsoan.<br>- Modalizazioa: igorleak esandakoarekiko duen jarrera islatzeko hizkuntza-baliabideak: ziurtasuna, derrigortasuna, posibilitatea, balorazioa.<br>- Erregistroa<br>**Testuaren eremuan**<br>- Komunikazio-asmoaren araberako informazioa/ideiak<br>- Komunikazio-asmoaren araberako informazioaren/ideien antolatzea<br>- Paragrafoa<br>- Jarraipen tematikorako hizkuntza-baliabideak eta elipsia.<br>- Puntuazioa<br>- Testu-antolatzaileak<br><br>**Perpausaren eta hitzaren eremuan**<br>**-** Oinarrizko zuzentasun-arauak<br><br><br>**PROZEDURAK:**<br>**PENTSATZEN, IKASTEN ETA KOMUNIKATZEN JAKIN**<br>Informazioa ulertzeko eta adierazteko prozedurak<br>-Analisia eta sintesia<br>☐ Enuntziazio testuinguruko elementuen ezaugarriak inferitzea<br>☐ Ereduzko testuetan edukia antolatzeko modua |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | - Hitz eratorriak<br>- Maileguak<br>- Laburtzapenak: siglak, ikurrak eta laburdurak<br>-Zenbakien idazkera: data, ordu, helbide…<br>-Deklinabidea<br>-Puntuazioa<br>-Baldintza<br><br>**PROZEDURAK PENTSATZEN, IKASTEN ETA KOMUNIKATZEN JAKIN**<br>**Informazioa ulertzeko prozedurak**<br>-Analisia<br>-Komunikazio-egoeraren ulermen orokorra<br>-Informazio esplizituaren zein inplizituaren identifikazioa<br>-Informazioen arteko erlazioa ezartzea<br>-Informazioaren konparazio eta kontrastea<br>-Testuko informazioen eta norbere ezagutzen arteko erlazioa eta kontrastea egitea.<br>**Planifikazioa**<br>-Komunikazio-egoerari erantzuteko hizkuntza-funtzioen eta testu-generoen identifikazioa eta konparazioa<br>-Ideien sorkuntza<br>-Helburuaren araberako ideiak edo informazioa jaso<br>-Jasotako informazioak konparatu eta aztertu<br>-Hautatutakoarekin ideia berriak sortzea<br>-Ideien arteko erlazioa<br>-Ideien funtzioa antzematea<br>-Funtzioaren baitan ideiak dagokion egituraren arabera antolatzea<br>-Testuaren osotasunaren eta haren zatien arteko erlazioa<br><br>**Testuratzea**<br>-Baliabide kognitiboak modu estrategikoan erabiltzea<br>-Kausa/ondorioa erlazioa adierazteko estrategien aplikazioa<br><br>**Berrikusketa**<br>-Datak ondo idazteko erregelak aplikatzea<br>-Orduak ondo idazteko erregelak aplikatzea<br>-Laburtzapenak ondo idazteko erregelak aplikatzea<br>-Ekintzaren autorregulazioa<br>**EGITEN ETA EKITEN JAKIN**<br>Informazio-iturriak eta informazioa identifikatzeko, eskuratzeko eta biltegiratzeko prozedurak<br>-Informazio-iturri digitalen identifikazioa<br>-Iturriaren egokitasuna eta fidagarritasuna baloratzea<br>-Informazioa hautatzea | | identifikazioa<br>☐ Informazio inplizituaren inferentzia<br>- Informazioen arteko erlazioa ezartzea<br>- Informazioaren konparazio eta kontrastea<br>☐ Testuko informazioen eta norbere ezagutzen arteko erlazioa eta kontrastea<br>Ulertutakoa adierazteko prozedurak<br>- Planifikazioa<br>☐ Komunikazio-asmoa definitzea<br>☐ Komunikazio-asmoaren eta eskakizunaren arabera ideiak sortu, iturrietatik bildu eta hautatzea<br>☐ Hautatutako testu-sekuentziaren arabera ideiak antolatzea<br>☐ Azalpenerako beharrezkotzat jotako bitartekoak (espazioaren antolaketa, bitarteko digitalak, denbora…) definitzea.<br>- Diskurtsoaren gauzatzea<br>☐ Dagokion testu-sekuentziaren arabera ideiak garatzea<br>☐ Baliabide kognitiboak modu estrategikoan erabiltzea<br>- Diskurtsoaren berrikusketa kolaboratiboa<br>☐ Finkatutako irizpideen baitan diskurtsoa aztertzea<br>☐ Lorpenak eta hobetzekoak identifikatzea<br>☐ Hobetzeko proposamenak elkarri egitea<br><br>Baliabide kognitiboak modu estrategikoan erabiltzea<br>Ideiak sortzeko eta kode anitzez adierazteko prozedurak<br>- Komunikazio-egoeraren analisia<br>☐ Komunikazio-asmoa definitzea<br>☐ Hartzailearen ezaugarriak identifikatzea<br>- Hartzailearen arreta erakartzeko alternatibak alderatzea<br>- Egoeraren ezaugarrien arabera estrategia egokienak hautatzea<br>**ELKARREKIN IKASTEN, BIZITZEN ETA KOMUNIKATZEN JAKIN**<br>Pertsonarteko erlazioa eta komunikazioa<br>- Norberaren sentimenduak, pentsamenduak, gogoak adieraztea besteen sentimendua mindu gabe<br>☐ Kortesia-formulen erabilera<br>- Besteek adierazten dutenari arreta eskaintzea<br>**NORBERA IZATEN JAKIN**<br>Ekintzaren autorregulazioa | | inferitzea<br>☐ Informazioaren antolatzeko modua eta horri dagokion eskema grafikoaren arteko erlazioa ezartzea<br>-Ideien sorkuntza<br>☐ Landutako estrategiak aplikatzea, ideia berriak sortzeko<br>-Informazioaren balioespena<br>☐ Arrazoiketa logikoa erabiltzea<br>- Informazioaren baliagarritasuna eta fidagarritasuna justifikatzea<br><br>**EGITEN ETA EKITEN ETA KOMUNIKATZEN JAKIN**<br>Planifikazioa<br>- Enuntziazio-testuingurua analizatzea<br>- Egoeraren eskakizunen arabera ideiak sortzea<br>- Dagokion testu-sekuentziaren arabera ideiak antolatzea<br>Diskurtsoa gauzatzea<br>- Dagokion testu-sekuentziaren arabera ideiak garatzea<br>- Estrategiak aplikatzea<br>- Baliabide kognitiboak modu estrategikoan erabiltzea, testuaren koherentzia eta kohesiorako ikasitako baliabideak aplikatzeko.<br><br>**ELKARREKIN IKASTEN ETA BIZITZEN JAKIN**<br>Berrikusketa: ikaskuntza-prozesuaren autorregulazioa<br>- Finkatutako irizpideekiko berrikusketa partekatua<br>☐ Lorpenak identifikatzea<br>☐ Hobetu beharrekoak identifikatzea<br>- Kideari iradokizunak egitea<br>- Kideak norberari egindako iradokizunak baloratzea<br>☐ Erabakiak hartzea eta gauzatzea<br><br>**IZATEN, ELKARREKIN IKASTEN ETA BIZITZEN ETA KOMUNIKATZEN JAKIN**<br>Jokabide sozialaren autorregulazioa<br>- Besteen beharren kontziente izatea, eta nork bere gaitasunak eta trebetasunak partekatzea, besteei laguntzeko eta hobetzeko helburua duten ekarpenak eginez.<br>- Besteen ideiak entzutea, eta norberarenak adieraztea elkarrekiko konfiantza-giro batean.<br>Norbere erabakiak eta betebeharrak burutzeko motibazioaren eta borondatearen indarraren autorregulazioa |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | -Informazioa baloratzea norbere beharren aurreikuspenen arabera<br><br>**NORBERA IZATEN JAKIN**<br>Ekintzaren autorregulazioa | | | | |
| | | 5 | | | |
| 5<br>5<br>10<br>8 | | 5<br>5<br>10<br>8 | | 5<br>5<br>10<br>8 | |

| 3 | METODOLOGIA |
|---|---|

Ikaslea egoera esanguratsuetan eta arazo konplexuen aurrean jarriko da. Arazo horri irtenbide egokia emateko, ikasitako guztia ( kontzeptu ezagutzak, egiteko prozedurak, barneratutako jarrerak), era pertsonalizatuan eta integratuan mobilizatzen eta transferitzen asmatu behar du, konpetentziak mailaka eta etengabe garatuz, konpetentzia komunikatiboa ardatza izanik.
Unitatearen trataera metodologikoa fase hauetan banatuko da:
HASIERAKO FASEA
•Konpetentziarekin erlazionatutako egoeraren aurrean kokatzea
•Egoeraren eskakizunei erantzuteko lan-plangintza egitea
GARAPEN-FASEA
•Egoerak eskatutako eduki-baliabideak eta bestelakoak bereganatzea
Eduki-baliabideen ebaluazioa
•Eduki-baliabideak mobilizatzen eta integratzen ikastea
EDUKI-BALIABIDEEN ZERTIFIKAZIOA
•Eduki-baliabideen ebaluaziorako jarduerak :Hasierako egoerari aurre egiteko beharrezko eduki-baliabideak zein oinarrizko beste baliabideak ikasleak bereganatu dituela frogatzea
AMAIERAKO FASEA
•Eduki-baliabideak transferitzenikastea
KONPETENTZIAREN ZERTIFIKAZIO-FASEA
•Ikasleak konpetentziaren lorpena frogatzea

| 4 | BALIABIDEAK |
|---|---|
| IKT baliabideak<br>Testu liburua<br>Ekiguneko baliabideak ( bideoak, entzumenak, jarduera osagarriak…)<br>UD 1 “Ohartu gabe heldu gara…””<br>UD 2 “Baga, biga, higa…”<br>UD 3 “Hitzatzea”<br>Lan koadernoa 4.1<br>Lan koadernoa4.2 | |
| **TESTU LIBURUA:Euskara eta Literatura DBH 4.** | **ARGITALETXEA: EKI PROIEKTUA. ELKAR** |

| 5 | EBALUAZIOA: TRESNAK, EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK |
|---|---|
| TRESNAK<br>•Zeregin bereziak edo kontrol-frogak: Unitate didaktikoaren garapenean ebaluatzeko soilik erabiltzen diren kontrolak edo jarduerak. Eduki-baliabideen froga, konpetentziaren froga.<br>•Zeregin arruntak, edozein jarduera: unitate didaktikoaren ikasketa-prozesuan ikasleek egiten dituzten ohiko jarduerak.<br>•Proiektua: Komunikazioa eta erabilera abiapuntutzat duen unitatearen komunikazio-proiektu gidatuak (planifikazio, testualizazio eta hobekuntza fasean)<br>•Behaketa sistematikoa: jarrerazko helburuak neurtzekoak | EBALUAZIO FASEAK<br>Ebaluazio diagnostikoa. Hau ikasle bakoitzaren eta ikastaldearen aurretiko egoera eta premiak ezagutzeko egingo da betiere irakasleak beharrezkotzat jotzen badu. (Hasierako fasea)<br>Ikasleen prozesuko ebaluazioa. Ikaskuntza prozesu osoaren garapena eta bilakaeraren berri ematen du, aurrera egin ahala ahuleziak identifikatzeko eta hauek hobetzeko. (garapen eta amaierako fasea)<br>Ebaluazio egiaztatzailea. Ikasitakoa ebaluatzea edo ikasleen errendimendua neurtzea du helburu, eta, horretan oinarrituta, hartu beharreko erabakiak hartzea. Ebaluazio mota honek, hain zuzen, aztertzen eta egiaztatzen du ea ikasleek haiengandik espero ziren emaitzak izan dituzten ala ez.(Konpetentzia egiaztatzeko fasea) |

| | |
|---|---|
| Jarrera edukiak baloratzeko unean kontuan hartuko da: begirunea,eguneroko lan aktiboa, parte-hartzea, txukuntasuna eta euskararekiko jarrera aktiboa. | Horrela, ebaluatzeko tresnak erabiliz, eduki-baliabideen eta konpetentziaren zertifikazio-nota aterako da. Bata zein bestearen nota 4 batetik gorakoa bada beheko ponderazioa aplikatuko da. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA** | **EDUKI-BALIABIDEAK** | **%40** | **KONPETENTZIA** | **%40** | **JARRERAK** | %20 |

| 6 | BERRESKURAPEN SISTEMA |
|---|---|

Ebaluazioa jarraitua izango da.
Ebaluazioa gainditu ezean, gainditutzat emango da hurrengoa lortuz.
3.ebaluazioa gainditzen duen ikasleak gaia gaindituko du.
Ebaluazio erdian etxera oharra bidaliko da ikaslearen garapena jakinaraziz.

Ohiko zein ez-ohiko deialdian azterketa konpetentzietan oinarrituko da.
Aurreko ikasturtekoa gainditu gabe balego eta ikasleak lehendabiziko bi ebaluazioak ez baditu gainditzen bi aukera emango zaizkio, maiatzean eta ekainean.
Hurrengo urterako geldituko balitzaio lehenengo ebaluazioa gaindituko balu, edo 2. ebaluazioa gaindituko balu gainditutzat emango zaio. Honela ez balitz Ez- Ohiko froga gisa konpetentzietan oinarritutako azterketa bat egingo litzaioke.